

MUSIKAZ BLAI

Programa hau, musika mundura hastapen eta gerturatze bat izango da, jarduera eta dinamika motibatzaileen bitartez. Parte hartzaileak musikaz gozatu eta ikasi egingo dute, honela, musikak guregan sortzen duen magia eta sentimenduak sentituko dituzte eta musikarekin harremanetan jarraitzeko grina edukiko dute.

Musikarekin kontaktuan dauden haurrek elkarbizitza askoz hobe lortzen dute, komunikazioa orekatuagoa izanik. Adin honetan musika izugarri gustatzen zaie, kantatzen, dantzatzen gozatzen dute...

Programa honetako jardueretariko bat perkusio tailerra da. Keimak, perkusio-instrumentuak jarriko ditu parte hartzaileentzat, begirale baten laguntzaz korro bat eratuko da eta perkusio-instrumentuak joko dute melodia bat lortu arte.

Honez gain, musikarekin erlazioatutako eskulan tailerrak egongo dira eta beirazko botila birziklatuekin piano bat egingo dute talde lan bezela.

